

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO  
ERAGINAREN EBALUAZIOA

TURISMOAREN  
ESPARRUAN



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2024

Izenburua: «Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa turismoaren esparruan»

Argitaratzailea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea  
Manuel Iradier kalea 36. 01005-Vitoria-Gasteiz

Egilea: Red2Red: Cynthia Bartolomé Esteban; Anabel Suso Araico;  
Clara Inés Guilló Girard

Data: 2024ko apirila

---

# AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA .....	4
2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO ALDERDI GILTZARRIAK .....	6
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN .....	6
2.2. DESBERDINTASUNAK BALIABIDEAK LORTZEKO ORDUAN .....	9
2.3. DESBERDINTASUNAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE- HARTZEAN.....	19
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA.....	21
2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK .....	24
3. LEGERIA.....	27
4. DATUEN ITURRIAK.....	28
5. ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK.....	30

# 1. TESTUINGURUA

Turismoaren Mundu Erakundearen (TME) iritziz, turismoa **fenomeno sozial, kultural eta ekonomikoa** da, pertsonak beren ohiko inguruetik kanpo dauden herrialde edo tokietara lekualdatzea dakarrena, arrazoi pertsonalak, profesionalak edo negoziokoak direla medio.

TMEren arabera, turismoaren sektorean —zeinean gehienak emakumeak baitira— badago genero-berdintasuneko egoera batera iristeko aukera.

Hala ere, alderdi askotan, gainerako jarduera edo sektore ekonomikoen antzekoa da sektore hori. Dokumentu honek azertu nahi du sektore horretan emakumeek duten zeregina, kontuan izanik gaur egun jarduera garrantzitsuenetako bat bihurtu dela turismoa ekonomiarentzat. Turismo-industriako errealitateak erakusten duenez, nahiz eta emakumeentzat enplegatzaile oparoa izan, **sortutako enplegua eredu patriarkal** oso nabarmen baten isla da, tradizioz emakumeei eta gizonei esleitutako roletan. Segregazio horizontala eta bertikala gertatzen dira, eta enplegua prekarizatu egiten da; batez ere, turismoaren sektoreko eremu feminizatuenetan. Horrek eragin argia du emakumeengan.

Turismoaren industriak bi alderdi nagusi nabarmentzen ditu: alde batetik, enpleguari dagokionez, eskuragarri dauden datuek adierazten dute **eremu feminizatua** dela. Alderdi hori prestakuntza-etapan jada azaltzen da, eta, bereziki, turismoko unibertsitate-ikasketetan, non **emakumezko ikasleen presentzia handiagoa baita gizonezko ikasleena baino**. Turismoko enpleguan, emakumeak ostalaritzan aritzen dira bereziki —ekonomia osoko eremurik prekarioenetako batean—. Sektore horretako emakume langileek gizonek baino neurri handiagoan dituzte aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialak. Eta, bestalde, sektorearen feminizazio horren **emaitza ez da emakumeen presentzia eta parte-hartze handiagoa erantzukizuneko karguetan**.

Era berean, turistak genero-ikuspegitik aztertuz gero, **zenbait alde ikusten dira emakumeek eta gizonek bidaietan duten portaeran**; bereziki, joan-etorrien maiztasunari edo helmugan egiten diren jarduera motei dagokienez.

Azertu beharrekoa da, halaber, **genero-rolen** iraunkortasuna —bereziki, turismoa sustatzeko jardueran—. Sektoreko publizitatea aztertuta, argi ikusten da emakumeak modu estereotipatuan agertzen direla. Hori kaltegarria da gizarte bidezko eta berdinzale bateranzko bidean. Genero-desberdintasunaren mutur-muturrean, **emakumeen aurkako indarkeria matxisten** zenbait adierazpen daukagu; turismoaren eremuan, jai- eta aisialdi-guneetako sexu-indarkeriak intzidentzia handia du.

Testuinguru horretan, desberdintasun-elementu horiek gainditze aldera, funtsezkoa da berdintasunaren arloko lege-aginduak bezala gobernuek ezarritako konpromisoak ere betetzea. Nazio Batuek Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ezartzeko emandako aginduaren ondorioz, turismoa, emakumeen enpleguan duen garrantziagatik eta egiten duen ekarpenagatik, parte garrantzitsutzat hartu behar da Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren

---

helburuak lortzeko, eta, bereziki, Garapen Jasangarrirako 5. Helburua, genero-berdintasunari eta emakumeen ahalduentzari buruzkoa.

Turismoaren eta Merkataritzaren III. Euskal Estrategiak (2030) eta Eusko Jaurlaritzaren 2023–2025 Ekintza Planek Nazio Batuen agindu hori barne hartzen dute, konpromiso honen bidez: **EAE helmuga turistikoa segurua, jasangarria eta arduratsua izatea.**

Era berean, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu du sektore turistikoa genero-berdintasuna sustatzeko konpromisoa aurreko gobernu-planetan (XII. legegaldikoan, adibidez), eta, besteak beste, *Enpresa turistikoa berdintasun-plan* bat sartu du, bai eta *Euskadiko Turismoaren Kode Etiko* bat ezartzea ere, zeinaren printzipioen artean berdintasuna, gizarteratzea eta aniztasunarekiko tolerantzia baitaude; halaber, aipatutako kode etikoak bereziki adierazten du **turismo-jarduerek genero-berdintasuna errespetatuko dutela.**

Azkenik, ez dagoenez datu eta azterlan askorik EAEko turismoaren sektorean emakumeen egoera neurtzen duenik, beste iturri batzuk kontsultatu behar izan dira; gehienak, Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalarenak (EIN).

## 2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO ALDERDI GILTZARRIAK


### 2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

#### EAEko turismo igorlea

EAEko gizartearen gehiengoak urtean zenbait bidaiak egiten ditu; batez ere, iraupen laburrekoak. EAEko biztanleen ia % 60k adierazi dute gau bat edo biko zenbait «irtenaldi» egiten dituela urtero. Horrez gain, % 39k astebeteko edo gehiagoko zenbait irteera egiten dituzte, eta % 38k gutxienez urtean behin egiten dituzte iraupen horretako bidaiak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023).

Hala ere, ikusten da **EAEko emakumeek gizonek baino bidaiak gutxiago egiten dituztela**. Urtean zenbait bidaiak egiten dituzten emakumeen ehunekoa gizonena baino txikiagoa da: 7 puntu astebeteko edo gehiagoko bidaietan eta 13 puntu bidaiak laburretan. Gainera, inoiz edo ia inoiz bidaiatzen ez dutela dioten emakumeen ehunekoa gizonena baino nabarmen handiagoa da bi kasuetan.

**1. grafikoa.** EAEko biztanleen bidaiatzeko ohitura, bidaiaren iraupenari, maiztasunari eta sexuari erreparatuta (2023)



**Iturria:** Turismoari buruzko euskal herritarren iritzia (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023)

- Bidaiaren arrazoi nagusiak:

EAE barruan egindako bidaiari edo bisitei erreparatzen badiegu, EAEko biztanleen lehenetsutako helmugan artean kostaldera egindako bisitak nabarmentzen dira (bidaien % 71 helmuga horri nahiko edo oso lotuta daude), eta hauek dira ondorengoak: naturaguneetara egindako bisitak (% 63); artea, ondarea eta kultura ezagutzeko bidaiak (% 60); eta gastronomiaz gozatzeko bidaiak (% 54).

EAEEn zehar bidaiatzeko motibazioak desberdinak dira emakumeen eta gizonen artean. Emakumeentzat eta gizonentzat motibazio nagusia euskal kostaldea bisitatzeko bada ere, emakumeek, horren ondoren, adierazten dute artea, ondarea eta kultura ezagutzeko helburu duten bidaietan dutela interesa, eta,

horren ondoren, naturaguneetarako bidaietan; gizonentzat, berriz, naturaguneak bisitatzea da bidaiatzeko bigarren motibazioa.

**1. taula.** Bidaiatzea asko edo dezente interesatzen zaien EAEko biztanleak, sexuari eta EAEn zehar bidaiatzeko arrazoari erreparatuta (2023)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>Euskal kostaldea bisitatzea</b>	% 71	% 70	% 71
<b>Artea, ondarea eta kultura ezagutzea</b>	% 60	% 63	% 56
<b>Naturaguneak bisitatzea</b>	% 63	% 61	% 65
<b>Gastronomiaz gozatzea</b>	% 54	% 51	% 56

**Iturria:** Turismoari buruzko euskal herritarren iritziak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023)

Aste Santuko bidaietan, emakumeen eta gizonen jarduera nagusiak tokiak eta natura ezagutzea izan ziren, sexuaren araberako alde txikiak. Hala ere, emakumeen artean, **senideak edo lagunak bisitatzeko** egindako joan-etorriak dira hirugarren arrazoa (gizonekiko ehuneko 11 puntuko aldeaz), eta, gizonen artean, turismo gastronomikoa (emakumeekiko ehuneko 9 puntuko aldeaz).

**2. taula.** EAEko biztanleen Aste Santuko bidaietako jarduera mota, sexuari erreparatuta (2023)

	Emakumeak	Gizonak
<b>Tokiak ezagutzea</b>	% 55	% 56
<b>Jarduerak naturan</b>	% 31	% 33
<b>Gastronomia</b>	% 26	% 35
<b>Senideak edo lagunak bisitatzea</b>	% 28	% 17
<b>Kultura (museoak, erakusketak, etab.)</b>	% 15	% 11

**Iturria:** Turismoari buruzko euskal herritarren iritziak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023)

Udan, gizonetan sariagoak dira kostaldeko turismoa (bidaiatzen duten gizonen % 52 eta emakumeen % 46) eta naturako eta abenturako bidaiak (% 26 eta % 23, hurrenez hurren). Emakumeek kultur bidaiak eta ekitaldiak dituzte nahiago, baita landa-turismoa ere, alde txikiagatik bada ere (% 21 emakumeek eta % 18 gizonek, eta % 14 emakumeek eta % 12 gizonek, hurrenez hurren).

**3. taula.** EAEko biztanleen udako oporretako bidaia mota, sexuari erreparatuta (2023)

	Emakumeak	Gizonak
<b>Kostaldeko turismoa</b>	% 46	% 52
<b>Hiriak ezagutzea</b>	% 32	% 32
<b>Natura eta abentura</b>	% 23	% 26
<b>Kultura eta ekitaldiak</b>	% 21	% 18
<b>Landa-turismoa</b>	% 14	% 12
<b>Senideak edo lagunak bisitatzea</b>	% 4	% 5
<b>Turismo gastronomikoa</b>	% 2	% 4

**Iturria:** Turismoari buruzko euskal herritarren iritziak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023)

### Turismo hartzailea EAEn

Turismoa EAeko jarduerarik garrantzitsuenetako bat bilakatu da; izan ere, sarrera ekonomiko handiak eta enplegua sortzen ditu. EAeko Turismoaren Behatokiak (2023) zenbatetsi du EAEn turismo-jardueraren ekarpen ekonomikoa BPGaren % 5,5 izan zela 2022 urtean.

**EAE bisitatzen duen turista profila**, bisitarien ia % 70ean, 40 urte edo gehiagoko heldu bat da. EAE bisitatzen duten 40 urtetik beherako emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino. Gizonen kasuan, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da: adin horretatik aurrera, gizonak dira etortzen diren gehiengoak.

4. *taula.* EAE bisitatzen duten turistak, adinari eta sexuari erreparatuta (2019)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
18-24 urte	% 3,1	% 3,3	% 2,9
25-29 urte	% 8,4	% 10,5	% 6,6
30-39 urte	% 19,5	% 21,1	% 18,1
40-49 urte	% 21,7	% 20,1	% 23,1
50-59 urte	% 17,2	% 16,1	% 18,1
60 urte edo gehiago	% 30,1	% 28,9	% 31,2
<b>Guztira</b>	% 100	% 100	% 100

Iturria: IBILTUR (Eustat, 2020).

EAE helmuga turistiko gisa aukeratzeko arrazoi nagusiak gastronomia, hiriko turismoa eta kultura-turismoa dira (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2020).

Ez da alde handirik ikusten sexuaren arabera; hala ere, kultura-turismoa edo kostaldeko turismoa egitea aukeratzen duten emakumeen ehunekoa handiagoa da gizonena baino.

5. *taula.* EAE bisitatzen duten bidaiariek egindako jarduerak, sexuari erreparatuta (2019)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>Gastronomia</b>	% 87,5	% 87,9	% 87,2
<b>Hiriko turismoa</b>	% 79,0	% 81,3	% 77,1
<b>Kultura-turismoa</b>	% 62,9	% 66,3	% 60,0
<b>Ibilbide turistikoak</b>	% 60,8	% 63,0	% 58,9
<b>Kostaldeko turismoa</b>	% 58,9	% 61,4	% 56,7
<b>Beste jarduera batzuk</b>	% 35,5	% 36,9	% 34,2

Iturria: EAeko aisialdiko turisten portaeraren gakoak, analisi ebolutiboa eta tipologiak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2020a).

Aipatzekoa da EAE Espainiako **helmuga gastronomikoen** sailkapeneko hirugarren postuan dagoela.

EAEn **kongresu eta konbentzioetara** bertaratzen diren turisten artean (lan-eremuari lotuagoa, beraz) gizonak gehiago dira (bertaratutako guztien % 57,2) emakumeak baino (% 42,8) —(Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2020b).—.



## 2.2. DESBERDINTASUNAK BALIABIDEAK LORTZEKO ORDUAN

### Hezkuntza eta prestakuntza

EAEn, **Lanbide Heziketako** (LH) ostalaritzako eta turismoko heziketa-zikloetan emakumeen presentzia nabarmen txikiagoa da gizonena baino, batez ere Oinarrizko LHn (ikasleen % 35,9) eta Erdi-mailako LHn (% 36,4). Goi-mailako Lanbide Heziketan sexuaren araberako banaketa ia parekidea da (% 49,6).


**6. taula.** EAEko ostalaritza eta turismoko heziketa-zikloan matrikulatutako ikasleak, sexuari eta LHko mailari erreparatuta (2021-2022 ikasturtea)

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)
<b>Oinarrizko LH</b>	271	483	% 35,9
<b>Erdi-mailako LH</b>	276	482	% 36,4
<b>Goi-mailako LH</b>	466	474	% 49,6

**Iturria:** Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzei buruzko estatistika (Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, 2023)

Alde horiek lurralde historikoetan ere agertzen dira, desberdintasunekin. Araban, emakumeek eta gizonak presentzia orekatua dute LHko maila guztietan. Era berean, Gipuzkoan presentzia orekatua dute, Erdi-mailako LHn izan ezik, non emakumeak ikasleen % 30,2 baitira. Bizkaian, bai Oinarrizko LHko zikloan, bai Erdi-mailako LHkoan, emakumezkoek gizonzkoek baino presentzia txikiagoa dute (ikasleen % 31,1 eta % 33,3, hurrenez hurren).

**2. grafikoa.** EAEn ostalaritza eta turismoko heziketa-zikloan matrikulatutako ikasleak, sexuari eta LHko mailari erreparatuta (2021-2022 ikasturtea)



**Iturria:** Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzei buruzko estatistika (Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, 2023)

Nolanahi ere, hiru lurraldeetan ikusten da **handiagoa dela emakume ikasleen presentzia Goi-mailako LHko ostalaritzako eta turismoko heziketa-zikloetan.**

Hipotesi bat izan daiteke gizonetako lehenago uzten dituztela ikasketak horiek, eta emakumetako, berriz, ikasketekin jarraitzen dutela, goi-mailara arte.

Joera hori berretsi egiten da unibertsitate-ikasketetan. 2021-2022 ikasturtean, EAEn turismoko graduan matrikulatutako ikasleen % 68,7 emakumeak dira (Eustat, 2023).

**Emakumeen eta gizonen arteko aldea handitu egiten da turismo-ikasketak bukatutakoan artean.** 2021-2022 ikasturtean, EAEn turismoko unibertsitate-gradua amaitu zuten ikasleen % 82,6 emakumeak izan ziren.

**7. taula.** EAEn unibertsitateko turismoko graduan matrikulatutako eta graduatutako ikasleak, sexuari erreparatuta (2021-2022 ikasturtea).

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)
<b>Matrikulatuak</b>	193	88	% 68,7
<b>Graduatuak</b>	57	12	% 82,6


Iturria: Unibertsitate-estatistika (Eustat, 2023)

## Enplegua

EAEko **turismoaren sektorean** 90.000 pertsona baino gehiago ari dira lanean (99.450 pertsona III. hiruhilekoan eta 93.311 pertsona 2023ko IV. hiruhilekoan). Haietatik % 80 inguru soldatukoak ziren (% 85 udako hiruhilekoan), eta, gainerakoak, profesional autonomoak (EIN, 2023b).

Espanian, 2023an turismoaren eremuan **lanean ari zirenen** % 43,8 emakumeak ziren, eta % 56,2, gizonak. Aisian eta garraioan izan ezik, zeinetan ia ez baitabil emakumerik lanean, **turismoari lotutako gainerako zeregin guztietan emakumeak gainordekatuta daude.**

**3. grafikoa.** Estatuan turismoan lanean ari diren pertsonak, sexuari eta jarduerari erreparatuta (2023)




Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2023b)

**Turismoaren eremuan enplegatutako pertsonen banaketa jardueraren arabera** analizatzean, agerian geratzen da ostalaritza dela —ostatu- eta jatetxe-zerbitzuak— sektoreko jarduerarik garrantzitsuen enpleguari dagokionez. Izan ere, Espainian turismoaren eremuan lanean ari direnen % 55,9 biltzen du jarduera horrek.

Turismoaren eremuan, emakumeen ia % 70 ostalaritzan ari dira lanean (% 50,4 jatetxeetan eta % 18,7 ostatueta). Horrek adierazten du jarduera horretan **handia dela sektoreko emakumeen bereizketa horizontala**.

**4. grafikoa.** Estatuan lanean ari diren pertsonen banaketa, sexuari eta jarduerari erreparatuta. Segregazio horizontala (2023)



**Iturria:** Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2023b)


**Lanbide-egoerari**<sup>1</sup> dagokionez, zerbitzuen sektorearen feminizazioa gorabehera (landun guztien artean % 54 emakumeak dira), gizon baino emakume enplegatzailer gutxiago dago sektorean<sup>2</sup> (ehuneko 23,5eko alde), bai eta soldatarik gabeko enpresaburu gutxiago ere<sup>3</sup> (ehuneko 11,5). Egoera horrek adierazten du, neurri batean, **emakumeen segregazio bertikala dagoela zerbitzuen sektorean**.

<sup>1</sup>Eink hiru egoera bereizten ditu pertsona landunei dagokienez: (1) soldatukoak edo besteren kontura lan egiten dutenak —bi mota: sektore publikokoak edo sektore pribatukoak—; (2) norberaren konturakoak —horien artean enplegatzailerak eta soldatarik gabeko enpresaburuak bereizten ditu, besteak beste—; (3) beste egoeraren bat. Informazio gehiago EINn «[Trabajo. Notas metodológicas y explicativas](#)» webgunean.

<sup>2</sup>Enplegatzailer hitzaren bidez erreferentzia egiten zaio haientzat lanean hirugarrenak dituztenei.

<sup>3</sup>Soldatarik gabeko enpresaburuak edo langile independenteak negozio edo enpresa baten jabeak dira, baina ez dute enplegaturik beren kargura.

**5. grafikoa.** Estatuan zerbitzuen sektorean lanean ari diren pertsonak, sexuari eta egoera profesionalari erreparatuta (2023)



**Iturria:** Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2023)

Aurretik turismoan lan egin duten **langabeei** dagokienez, langabezian dauden emakumeen ehunekoa gizonena baino pixka bat txikiagoa da sektorea oro har hartuta. Hala ere, garraioa eta aisialdia alde batera uzten baditugu, gainerako turismo-jarduera guztietan emakumeak dira enplegurik gabeko gehienak. Zehazki, emakumeak dira bidaia-agentzietako langabeen % 85 eta ostatu-zerbitzuetako langabeen % 63,5 (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, SEPE, 2023).

**8. taula.** Estatuan turismoan langabezian dauden pertsonak, sexuari eta jarduerari erreparatuta (2022-4H)

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)
<b>Ostatuak</b>	43,9	25,2	% 63,5
<b>Jatetxeak</b>	91,1	88,0	% 50,9
<b>Bidaia-agentziak</b>	1,7	0,3	% 85,0
<b>Garraioa</b>	8,7	31,2	% 21,8
<b>Higiezinen agentziak eta alokairuak</b>	4,2	3,3	% 56,0
<b>Aisia</b>	23,4	27,0	% 46,4
<b>Turismoa guztira</b>	173,0	175,0	% 49,7

**Iturria:** Enplegua turismoaren sektorean Espainian: egoera eta joera (SEPE, 2023).

Bestalde, Gizarte Segurantzako afiliazio-datuek erakusten dute EAEn **turismo-jardueretan Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen** % 48,5 direla emakumeak. % 51,0 soldatuen artean eta % 38,9 sektoreko autonomoen artean (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2022).

Era berean, **emakumeek gizonek baino presentzia nabarmen handiagoa dute** ostalaritzarekin eta bidaia-agentziekin eta bidaia-agentzia handizkariekin lotutako jardueretan. Aldiz, presentzia txikia dute beste turismo-jarduera batzuetan, batez ere garraioarekin lotutakoetan.

9. taula. EAEn Gizarte Segurantzaren turismo-jardueretan afiliatutako pertsonak, sexuari eta adarrari erreparatuz (2022)

		Emakumeak	Gizonak
Ostalaritza	Ostatuak	% 60,1	% 39,9
	Jatetxeak	% 56,2	% 43,8
	Ostalaritza, guztira	% 56,6	% 43,4
Bidaia-agentziak edo bidaia-agentzia handizkariak		% 72,9	% 27,1
Beste turismo-jarduerak batzuk	Lurreko garraioa	% 14,9	% 85,1
	Beste garraio batzuk	% 31,9	% 68,1
	Garraioarekin uztartutako jarduerak	% 32,1	% 67,9
	Garraio-ekipamenduaren alokairua	% 24,2	% 75,8
	Kultura-industria	% 50,4	% 49,6
	Aisialdi- eta kirol-jarduerak	% 40,1	% 59,9
	Beste turismo-jarduerak batzuk	% 32,6	% 67,4

Iturria: Turismo-enpresetan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunei buruzko diagnostikoa (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2022)

Ostalaritzaren eremuan, **etxe-zerbitzarien** lana oso feminizatua dago eta emakume etorkinen presentzia handikoa da. Emakume langile horiek EAEn duten egoera espezifikoa buruzko daturik eta azterlanik ezagutzen ez den arren, Espainian *kelly*<sup>4</sup> deiturikoen aldarrikapenak agerian utzi du enplegu horren prekaritatea eta gogortasuna (Cañada, 2019).

Honako faktore hauen eraginez, degradatu egin da etxe-zerbitzariaren lanbidea: kontratu finkoak eta aldizkako kontratu finkoak pixkanaka galtzea eta ezohiko enplegu moduak gehiagotzea —aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak, eta, bereziki, azpikontratututakoak— Gainera, lan-kargak asko handitu dira azken urteetan (Cañada, 2019).

Etxe-zerbitzarien egoera aztertzean, agerian geratzen da bi faktore hauen elkargunearen adibide argia dela haien kasua: batetik, prekaritatea, eta, bestetik, emakumei historikoki eta kulturalki esleitutako eta gutxiespen sozialera kondenatutako zeregin batzuen ikusezintasuna. Lan-aldarrikapenen bidez, adierazi dute «zaintza-lanak ikusgai jarri» nahi dituztela, era horretan «lan horiek eremu publikoan birpolitizatzen laguntzen» delako (López-González eta Medina-Vicent, 2020).

**Kontratazio** motari dagokionez, ostalaritzaren eremua da —emakumeak gainordekatuta daude— **lanaldi partzialeko kontratuen** ehuneko handiena duena (Espainian, turismoaren sektoreko lanaldi partzialeko kontratu guztien % 63,0).

<sup>4</sup>Kellyek etxe-zerbitzariari egiten die erreferentzia —gatzelaniaz, «las que limpian»—. Informazio gehiago hemen: [Asociación las kellys](#)

Sektorean, oro har<sup>5</sup>, ikusten da **kontratu partzialek emakumeen ehuneko handiago bati eragiten diotela** (sektorean lan egiten duten emakume guztien % 26,6) gizonen baino (sektorean lan egiten duten gizon guztien % 12,7).

**10. taula.** Estatuan turismoan lanean ari diren pertsonak, sexuari eta lanaldiari erreparatuta (2023)

	Emakumeak	Gizonak
<b>Lanaldi osoa</b>	% 73,4	% 87,3
<b>Lanaldi partziala</b>	% 26,6	% 12,7
<b>Guztira</b>	% 100,0	% 100,0

**Iturria:** Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2023)

Ikuspegi interseksionalari jarraituz, **sektorean lanean ari diren emakume migratzaileen egoeran** jarri behar da arreta. Horri buruzko azterlan eta estatistika eguneraturik ez dagoenez, ezin da analisi sakonagorik egin; hala ere, zenbait ikerketak adierazten dute generoa eta migrazio-estatusa, batzuetan, lan-merkatu turistikoa diskriminatzeko eta segmentatzeko elementu gisa erabiltzen direla. Horrela, emakumeek eta bereziki migratzaileek egiten dituzte sektoreko lanik prekarioenak, hala nola etxe-zerbitzari, apartamentu turistikoen garbitzaile eta aretoko zerbitzari gisa (Salvador-Almela, Abellan-Calvet eta Izcara, 2020).

Oro har, sektorearen barruan, **enpleguaren egonkortasunari** dagokionez, 2023ko laugarren hiruhilekoan zerbitzuen sektoreko kontratuen % 17,1 aldi baterakoak ziren, eta Espainian aldi baterako kontratuen kopuru handiena zuen bigarren jarduera-sektorea zen, nekazaritzaren atzetik (EIN, 2023b).

Alderdi horretatik, kontuan hartu behar da zerbitzuen sektoreko soldatako emakumeen % 19,4k aldi baterako kontratua dutela (gizonek baino ehuneko 5 handiagoa). Beraz, esan dezakegu gizonak baino prekaritate-egoera handiagoan daudela emakumeak.

**11. taula.** Estatuan zerbitzuen sektoreko soldatako langileak, sexuari eta egoera profesionalari erreparatuta (2023T4)


	Emakumeak	Gizonak
<b>Aldi baterakoa</b>	% 19,4	% 14,2
<b>Mugagabea</b>	% 80,6	% 85,8
<b>Guztira</b>	% 100,0	% 100,0

**Iturria:** Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2023b)

Kontratuen behin-behinekotasuna estuki lotua dago **turismo-enpleguaren urtarokotasunarekin**. Hori adierazten du, nolabait, sektore osoan lanean aritutako pertsona kopuruaren hiruhilekoko bilakaerak 2021etik 2023ra artean. Izan ere, ikusten da pixka bat igo egin dela urte bakoitzeko hirugarren hiruhilekoan (udan) lanean ari diren pertsonen kopurua (EIN, 2023).

<sup>5</sup>Eskuragarri dauden estatistikek ez dute aukerarik ematen jarduerari erreparatuta bereizteko, eta, beraz, aurkezten diren datuek osorik hartzen dituzte sektoreari lotutako jarduera-atal guztiak (garraioa eta biltegiatzea, ostalaritza, higiezin- eta aisialdi-jarduerak); kasu batzuetan, turismoarekin lotuta ez dauden beste jarduera batzuk barne hartzen dituzte (garraioan eta biltegiatzean, adibidez).


**6. grafikoa.** Estatuan turismoan lanean ari diren pertsonen bilakaera, sexuari eta hiruhilekoari erreparatuta (2021-2023)



**Iturria:** Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2023)

Hala ere, ostatuaren eremu espezifikoan —oso feminizatua— lanean ari diren pertsona kopuruaren bilakaera aztertzen badugu, ikusten da hirugarren hiruhilekoko gorakadak nabarmen handiagoak direla turismoaren sektore osoan baino. Halaber, ikusten da oso nabarmen murriztu dela hurrengo hiruhilekoetan enplegatutako pertsonen kopurua.

**7. grafikoa.** Estatuan ostatuaren eremuan lanean ari diren pertsonen bilakaera, sexuari eta hiruhilekoari erreparatuta (2021-2023)



**Iturria:** Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2023)

Desberdintasun horiek, turismo-enpleguaren ezaugarrietan ez ezik, soldatetan ere islatzen dira. Nahiz eta egia den lanpostu askotan soldatak pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen dituzten hitzarmen kolektibo bidez araututa egon beharko liratekeela, soldatak beste aldagai batzuen mende daude, eta horietan diskriminazioa egon badago. Segregazio horizontalak eta bertikalak zuzenean eragiten dute **ordainsarrietan**, bai eta zerbitzuen sektoreko behin-behinekotasuneko eta partzialtasuneko lan-baldintzek ere; azken horiek gehiago eragiten diete emakumeei.

Horrela, ostalaritzak du —oso feminizatua dagoen enplegu-eremua, lehen ere adierazi dugunez— **jarduera-atal guztietako urteko batez besteko soldatarik baxuena** (14.632,81 €/urte) —EIN, 2021—.

Turismoaren sektorean, jarduera administratiboetan eta zerbitzu lagungarrietan gertatzen da emakumeei modu negatiboan eragiten dien **generoko soldata-arrakalarik** handiena. Jarduera-eremu horretakoak dira bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia handizkariak. Ostalaritza hirugarren postuan dago. % 17,5eko generoko soldata-arrakala du; hain zuen, ekonomia osoko generoko soldata-arrakala (% 18,4) baino ia ehuneko bat txikiagoa.

Aldiz, **soldata-arrakalarik txikiena garraioan** eta biltegiatzean ikusten da; eremu horretan gizonak dira gehiengoak. Gainera, jarduera-eremu horretan dago emakumeen batez besteko soldatarik handiena turismoaren sektore barruan.

**12. taula.** Estatuko urteko batez besteko soldata eta generoko soldata-arrakala turismoaren sektoreari lotutako jardueretan<sup>6</sup> (2021)

	Emakumeak	Gizonak	Aldea	Soldata-arrakala <sup>7</sup>
<b>Garraioa eta biltegiatzea*</b>	24.286,3 €	25.939,1 €	1.652,8 €	% 6,4
<b>Aisia</b>	16.753,6 €	19.600,5 €	2.846,9 €	% 14,5
<b>Ostalaritza</b>	13.388,6 €	16.229,9 €	2.841,3 €	% 17,5
<b>Higiezinaren eremuko jarduerak</b>	21.787,7 €	29.121,0 €	7.333,2 €	% 25,2
<b>Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak*</b>	15.248,4 €	21.648,6 €	6.400,2 €	% 29,6
<b>Jarduera-atalak, guztira</b>	23.176,0	28.388,7€	5.212,7€	% 18,4

**Iturria:** Soldaten egiturari buruzko inkesta (EIN, 2021)

**Soldata-osagarriak** dira emakumeen eta gizonen ordainsarien arteko aldearen zati handienaren arrazoia. Soldata-osagarriak era diskrezionalean esleitzen dira; izan ere, tradizioz maskulinitzat hartu izan diren ezaugarrien arabera definitzen dira (arriskugarritasuna, gauekotasuna, erantzukizuna, produktibitatea, prestasuna, etab.), eta hori emakumeen soldataren kalterako izaten da (Emakumeen Institutua, 2024).

Soldatei dagokienez, behin eta berriz adierazi da soldaten zati bat beltzean ordaintzen dela, *eskupekoak* balira bezala, hau da, kontratuan ezarritakotik kanpo; era horretan, enpresaburuak gutxiago kotizatzen dute Gizarte Segurantzari. Horrek adierazten du sektorean badagoela ezkutuko ekonomia.

<sup>6</sup>Eskuragarri dauden estatistikak ez dute aukerarik ematen jardueren arabera bereizteko, beraz, jarduera-atalen arabera aurkezten dira datuak. Kasu batzuetan (\*) turismoarekin lotuta ez dauden beste jarduera batzuk ere biltzen dituzte —hala nola garraioa, eta administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak—.

<sup>7</sup> Soldata-arrakalaren kalkulua: gizonen eta emakumeen hileko batez besteko soldataren arteko aldea, zati gizonen hileko batez besteko soldata.



Oro har, Espainian, kalkulatu da ezkutuko ekonomia BPGaren % 17 dela (ELGA, 2024). EAEn, BPGaren % 8,7 zen 2020an; merkataritza eta ostalaritza dira dabilzan bigarren eta hirugarren sektore informalenak (EUSTAT, 2023b)<sup>8</sup>.

Azkenik, aipatu behar da turismoa sektore ekonomiko gisa hedatzeak zenbait ondorio ekarri dituela beste azpisektore batzuetako lan-baldintzetan, hala nola **merkataritza-ordutegien liberalizazioa**.

Sexuaren arabera bereizitako gaiari buruzko datuak eskuratu ezin izan diren arren, hipotesi nagusia da ordutegien liberalizazioak oso eragin negatiboa izan dezakeela saltokietan lan egiten duten pertsonengan, zeinetan emakumeak baitira gehienak. Merkataritzaren eremuko langileentzako ondorioen artean, honako hauek aipa daitezke, besteak beste: lanaldi luzatzea eta horren ondorioz lan-karga handitzea; lan-kontziliaziorako zailtasunak; bizi-kalitatea murriztea; eta enpleguaren prekarizazioa areagotzea —izan ere, ordutegien liberalizazioa aldi baterako kontratazioarekin eta lanaldi partzialarekin lotu ohi da—.

### **Lan-kontziliazioa**

Turismoaren sektorean kontuan hartu beharreko funtsezko gaitako bat kontziliazioarekin dago lotua, edo, hobeto esanda, kontziliaziorik ezarekin. Turismoaren sektoreko enpleguaren ezaugarriek —hala nola lanaldi luzeak, enpleguaren behin-behinekotasuna eta ezegonkortasuna, urtarokotasuna edo lan-txandak— zaildu egiten dute ugalketa-lanarekin (etxeko lana eta zaintza-lana) bateragarri egitea, eta kontuan hartu behar da batez ere emakumeak arduratzen direla horretaz.

Horrek berak eragina izan lezake leku turistikoetako saltokietako langileengan, turismoak aldatu egin baititu haien irekiera- eta itxiera-ordutegiak eta oporraldiak.

Horri dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea mendetasunen bat duten pertsonak zaintzeko baliabide publiko oso gutxi daudela erabilgarri asteburuetan, jaiegunetan edo oporraldietan, kontziliatu ahal izateko. Eta baliabide horien eskaintza pribatua ere urria da, eta ekonomikoki eskuratzen zaila.

### **Beste baliabide batzuk**

- Laneko arriskuen prebentzioa eta lan-osasuna.

Merkataritzan eta ostalaritzan lan egiten duten pertsonak (gehienak, emakumeak) hainbat arriskuren eraginpean daude. Arrisku horiek segurtasunarekin, industria-higienearekin, ergonomiarekin eta faktore psikosozialekin lotuta daude —azken horien artean, behin-behinekotasuna, lanaldi luzeak, txandakako lana eta bezeroekiko tratua nabarmentzen dira, besteak beste— (Osalan, d.g.).

---

<sup>8</sup> EUSTATen arabera, «sektoreka, eraikuntza da ezkutuko ekonomiaren bolumenik handiena zenbatesten den sektorea, 2020an jardueraren % 23,9 izan zela kalkulatu baita. Haren atzetik, merkataritza (ibilgailuen konponketa barne), ostalaritza eta garraioa biltzen dituen sektoreak ezkutuan sortu zuen aberastasunaren % 17,1» (2023).

Estatistikako Zuzendaritza Nagusiaren ezbehar-tasari buruzko datuen arabera (2019) —Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak emanak—, garbiketako langileen artean (horien artean sartzen dira etxe-zerbitzariak), baja eragin zuten 4.012 lan-istripu erregistratu ziren Espainian 2017an, eta haien % 87,4k emakumeei eragin zieten.

- Turismoaren eremuko laguntza edo dirulaguntzetarako eskuragarritasuna

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak (2022) turismo-enpresei buruz egindako diagnostikoak adierazten du zenbateko garrantzia duen diruz lagundutako prestakuntzak eremu horretan. Zehazki, hau da ostatu turistikoko enpresetan eta establezimenduetan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko garatu beharreko ekintza posibleetako bat: emakumeak prestatzeko eta gaitzeko laguntzak eta dirulaguntzak ematea, haien garapen profesionala hobetzeko eta goragoko mailetara igotzea errazteko.

Hala ere, ez da topatu turismoaren eremuko laguntzei edo dirulaguntzei buruzko ez informaziorik, ez daturik, sexuaren arabera bereizia.

- Ezin bidaiatu ahal izateko arrazoiak:

EAEEn bidaiatzen ez duten pertsonen artean, emakumeak nabarmentzen dira gizonen aldean, bai Aste Santuko oporraldian (bidaiatzen ez duten pertsona guztien % 54,7), bai udan (% 59,7) (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023).

Pertsona horiek **bidaiatzeko aukerarik ez izateko** arrazoiak aztertzean, Aste Santuari buruzko datuetan ikusten dira sexuaren araberako diferentziarik handienak. Garai horretan, arrazoi pertsonalak dira **emakumeen artean ez bidaiatzeko lehen arrazoiak** (bidaiatu ez zuten emakume guztien % 30): **gaixotasunak, beste pertsona bat zaintzea eta abar**. Gizonen kasuan, berriz, lehenengo arrazoiak da lana edo ikasketak direla-eta bidaiatzeko denborarik edo egun liberrik ez izatea (bidaiatu ez zuten gizonen % 30). Arrazoi ekonomikoak dira hirugarren arrazoiak bi kasuetan; hala ere, arrazoi horregatik bidaiatu ezin izan zuten emakumeen ehunekoa (% 15) gizonena (% 13) baino pixka bat handiagoa da.

**13. taula.** Aste Santuan eta udan bidaiatzen ez duten EAEko pertsonak, sexuari eta ez bidaiatzeko arrazoiari erreparatuta (2023)

	Aste Santua		Uda	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
<b>Arrazoi pertsonalak (gaixotasunak, beste pertsona bat zaintzea eta abar)</b>	% 30	% 24	% 30	% 30
<b>Arrazoi ekonomikoak</b>	% 15	% 13	% 20	% 20
<b>Denborarik edo egun liberrik ez izatea</b>	% 21	% 30	% 15	% 21
<b>Gustatzen ez zaiolako</b>	% 6	% 8	% 10	% 8
<b>Urteko beste garai batean bidaiatuko du</b>	% 4	% 3	% 4	% 4
<b>Beste arrazoi batzuk</b>	% 14	% 22	% 19	% 17
<b>Guztira</b>	% 100	% 100	% 100	% 100

**Iturria:** Turismoari buruzko euskal herritarren iritzia (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023)

### 2.3. DESBERDINTASUNAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZEAN

Jarraian, EAEko turismoaren eremuko erreferentziazko organo, erakunde eta elkarteetan **emakumeek duten presentzia, ordezkaritza eta parte-hartzea** zehazten da.

Txosten hau egin den egunean, **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailean** presentzia orekatua ikusten da emakumeen eta gizonen zuzendaritza-postuetan (3 kasu bakoitzean). Hala ere, saileko mailarik handieneko bi kargudunak — sailburua eta Turismo eta Merkataritzako sailburuordea— gizonezkoak dira.

**14. taula.** *Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren organigrama Eusko Jaurlaritzaren XII. legegintzaldian, sexuari erreparatuta (2024)*

	Emakumeak	Gizonak
<b>Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila</b>	0	1
<b>Kabinete Zuzendaritza</b>	0	1
<b>Zerbitzu Zuzendaritza</b>	1	0
<b>Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza</b>	0	1
<b>Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza</b>	1	0
<b>Merkataritza Zuzendaritza</b>	1	0
<b>Guztira</b>	3	3

**Iturria:** Egitura eta funtzioak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2024)

5/2015 Dekretuaren arabera<sup>9</sup>, ahalegina egin behar da **Euskadiko Turismo Mahaian** emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin. Premisa hori betetzen da (2 emakume eta 2 gizon), baita erabaki-eskalan mailarik handieneko bi postuetan ere: presidentea gizon bat da (Turismo eta Merkataritzako sailburuordea) eta presidenteordea emakume bat (Turismoko zuzendaria).

Emakumeen presentzia nabarmen handia da **Turismoaren Euskal Agentziaren** administrazio-kontseiluan (12 emakume, Kontseilua osatzen duten 16 pertsonetatik). Hala ere, Zuzendaritza Nagusia gizon batek betetzen du, eta Kontseiluko hiru zuzendaritzetatik bakarrean da emakume bat buru; hau da, erabaki-postu gorenetan % 25 dira emakumeak.

<sup>9</sup>5/2015 Dekretua, urtarrilaren 27koa, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duena. [Esteka](#)

**15. taula.** Turismoaren Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluaren organigrama sexuari erreparatuta (2024)

	Emakumeak	Gizonak
<b>Zuzendaritza Nagusia</b>	0	1
Zuzendaritzako idazkaritza	1	0
Zerbitzu Korporatiboak	1	0
Administrazioa	1	0
Komunikazioa	1	0
<b>Lankidetzeta Publiko-pribatuko eta Lurralde Garapeneko Zuzendaritza</b>	0	1
<b>Lehiakortasun Zuzendaritza</b>	1	0
Kudeaketa, prestakuntza eta profesionalizatzea	1	0
Berrikuntza	1	0
<b>Marketin Zuzendaritza</b>	0	1
Produktua	2	1
Euskadiko Turismo Behatokia	1	0
Sustapena eta merkaturatzea	2	0
<b>Guztira</b>	12	4

Iturria: Organigrama eta plantilla (Basquetour, 2024)

EAEko **sektoreko enpresen zuzendaritzari** dagokionez, gizonen presentzia emakumeena baino pixka bat handiagoa da ia azpisektore guztietan; batez ere, turismo aktiboan (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2022). Beraz, enpresetan emakumeek ordezkari txikiagoa dute erabaki-postuetan, sektorean duten presentziaren aldean.

**16. taula.** EAEko turismo-enpresen zuzendaritzan dauden pertsonak (%)<sup>10</sup>, azpisektoreari eta sexuari erreparatuta (2021)

	Emakumeak	Gizonak
<b>Bidaia-agentziak</b>	0,6	0,7
<b>Hotelak</b>	0,6	0,6
<b>Beste ostatu mota batzuk</b>	0,4	0,4
<b>Turismo-gidariak</b>	0,4	0,3
<b>Turismo aktiboa</b>	0,2	1,0
<b>Guztira</b>	0,4	0,6

Iturria: Turismo-enpresetan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunei buruzko diagnostikoa (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2022)

EAEko **elkarteen eremuan**, hiru lurralde historikoetako 38 gida profesionalak osatzen dute gaur egun Euskadiko Turismo Gidarien Elkarte (APIT). APITen, % 76,3koa da emakumeen presentzia.

**17. taula.** APIT Euskadiko turismo-gidari profesionalak, sexuari eta lurralde historikoari erreparatuta (2024)

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)
<b>Bizkaia</b>	8	3	% 72,7
<b>Gipuzkoa</b>	17	5	% 77,2
<b>Araba</b>	4	1	% 80,0
<b>EAE guztira</b>	29	9	% 76,3

Iturria: APIT Euskadi, 2024

<sup>10</sup>Lanean ari diren pertsona guztien guztizkoaren gaineko batezbestekoa

## 2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

### **Androzentrismoa, genero-estereotipoak eta emakumeen ordezkari-turismoan**

Turismoaren sektoreak, gainerako eremuek bezala, genero-estereotipoen eragina du etengabe; estereotipo horien jatorria kultura patriarkalean dago. Beraz, historikoki hartu izan den **ikuspegi androzentrista** —gauza guztien neurritzat gizona hartzea— presente dago turismoan ere (Turismo Arduratsuen Foroa, 2015).

Turismoaren eremuan, **emakumeak objektu gisa irudikatzen dira askotan, eta ez ekintza-subjektu gisa**; aldiz, gizonen buruz abentura- eta nagusitasun-irudia erakusten da. Sarritan, arrazoi komertzialek justifikatzen dute genero-estereotipo horiek eta beste batzuk erabiltzea, eta transmititzen dituzten mezuen inplikazio etikoak saihesten dira (Calderon eta Rodríguez, 2024).

Genero-estereotipoek, lehendik zeuden genero-desberdintasunak sendotzeaz gain, ondorioak izan ditzakete ongizatean eta segurtasunean, bai turistentzat, bai helmuga turistikoetan bizi diren emakumeentzat (Calderon eta Rodríguez, 2024).

Turismoak emakume askori ekarri die lan-jarduerarako sarbidea. Horri buruz bi iritzi izan dira: jarduera horrek emakumeak ahaldundu ditzakeela eta lehendik zeuden mendekotasun moduak iraunaraz ditzakeela (Fuller, 2012). Turismoak genero-berdintasunean benetan lagundu dezan, funtsezkoa da egungo egitura soziokulturalen eraldaketa bermatuko duten beste faktore batzuekin konbinatzea. Egungo kritika feministak (Fuller, 2012) genero-harremanen testuinguru-analisi bat proposatzen du, kontuan hartuko dituen sistema espezifiko bakoitza eta emakumeek sektorearen barruan beren bizitzak hobetzeko erabiltzen dituzten estrategiak. Ikuspegi hori lagungarria izan daiteke turismoak testuinguru espezifiko bakoitzean mantentzen dituen genero-, etnia- eta arraza-desberdintasunak identifikatzeko eta deuseztatzeko.

Illo horretan, Turismoaren Mundu Erakundeak (TME) **turismoaren ikuspegi arduratsua, ingurumenarekiko jasagarria eta komunitate eta pertsona guztientzako inklusiboa** izateko eskatzen du (TME, 2019).

Horretarako, funtsezkoa da berdintasuna eta genero-ikuspegia presente egotea turismoaren eremuari lotutako langileen prestakuntzan; bereziki, turismoaren sustapenean eta marketinean lanean ari diren pertsonentzat (Calderon eta Rodríguez, 2024).

### **Indarkeria matxista**

- Jaiak eta indarkeria:

**Tokiko jaiak eta aisialdiko beste gune batzuk**, hala nola musika-jaialdiak, pertsonak mobilizatzeko gaitasun handiko ekitaldiak dira, eta, lurralde askotan, turismo asko erakartzen dute.

«Percepción social de la violencia sexual» txostenaren arabera (Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza —GIGO—, 2018), azterlanerako elkarrizketatutako pertsonen % 71,9k adierazi zuten **jaietan eta jaialdietan gertatzen direla sexu-eraso gehien**.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestaren arabera (GIGO, 2019), bikotetik kanpo sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen % 17,8ri aisialdiko guneetan gertatu zitzaizen erasoak (diskoteketan, tabernetan, kafetegietan, pubetan, jatetxeetan eta abarretan), eta haiek dira eraso horiek gertatzen diren laugarren leku ohikoena.

Noctámbul@s proiektua dela-eta egin den urteko bosgarren txostenak (Gaueko aisialdiko testuinguruetan droga-kontsumoaren eta sexu-indarkeriaren arteko harremanari buruzko behatokia, 2018) agerian uzten ditu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenak gaueko aisialdiko inguruneetan. Inkestari erantzun dioten emakumeen % 5ek diote indar bidezko bortxaketa baten biktima izan direla, % 17k adierazi dute indarrik gabeko bortxaketa nozitu dutela, eta % 80k salatu dute baimenik gabeko ukituren bat jaso dutela. Gainera, emakumeek bestelako indarkeriazko portaerak jasaten dituzte, hala nola iruzkin deserosoak (galde-tutako emakumeen % 97), sexu-harremanak izateko tematzea (% 86) eta hainbat gizonen inguratuta izatea (% 44) (Gaueko aisialdiko testuinguruetan droga-kontsumoaren eta sexu-indarkeriaren arteko harremanari buruzko behatokia, 2018).

Indarkeria matxistak, eta, bereziki, sexu-indarkeria, aisialdiko guneetatik eta jaietatik ezabatzeko erronkari erantzunez, zenbait ekimen egin dira EAEn:

- «Jaietan emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko tokiko prozesuak sustatzeko gida» egin du Emakundek, Beldur Barik programaren barruan. Gidaren helburu nagusia da tokiko gobernuei jaiguneetan eraso matxistak identifikatzeko eta prebenitzeko beharrezko diren tresnak eskaintzea.
- EAEko udalek badituzte jaiguneetako indarkeria matxista prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko edo erantzuteko protokoloak. Herriko jaietan eraso matxistak eragozteko, kanpainak abiarazi dituzte herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko asmoz.
- Berdinsarearen esparruan —Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarea, Emakundek eta Eudelek bultzatua—, Berdintasunezko Jaien Laborategia jarri da abian. Haren jarduera-ardatzetako bat da jaiguneetan sexu-indarkeriari aurrea hartzea.
- Emakundek, foru-aldundiekin lankidetzan, «Indarkeria sexistarik gabeko jaien alde» sentsibilizazio-kanpaina egiten du urtero.
- Zenbait eragile sozial eta ekonomikok martxan jarri dituzte jaiguneetan (BBK Live, Azkena Rock Festival...) indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko eta prebenitzeko jarduerak. «Ez beti da ez» kanpainaren barruan, BBK Livek gida bat banatzen du, 4 hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez), eraso sexistak identifikatzeko, haien aurrean jarduteko eta haiei erantzuteko jarraibideekin. Gainera, bi jaialdietan gune bat antolatzen da, informazioa emateko eta balizko sexu-erasoen aurrean arretea emateko.

- Turismo sexuala:

Turismo sexuala gero eta ugariagoa da munduan. Lotura estua du sexu-esplotazioarekin eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketarekin. Ikerketa batzuen arabera, Espainia, oro har, turismo sexualaren helmuga da, eta, toki askotan, eskaintza turistikoaren parte da prostituzioa (Guilló eta Santiago, 2016).

Ez dago EAEn zer neurri duen ezagutzeko datu edo azterlan nahikorik, baina, emakumeetan duen eragina dela eta, garrantzitsua da ikusgai jartzea. 2030erako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Estrategiaren arabera, kalkulatzen da EAEn 2019an prostituzioan ari ziren emakumeen % 10 eta % 15 bitartean sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izan zirela. Eusko Jaurlaritzak gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren aurkako borroka sartu du berdintasun-plan guztietan eta genero-indarkeriaren aurkako plan guztietan.

## 2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

Jarraian, turismoaren eremuan eragina duten agindu espezifikoak aipatzen dira, zeharkako berdintasun-tresna juridikoei dagozkienak, bai eta turismoari buruzko EAEko arau espezifikoak ere.

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>Lege horrek aintzat hartzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoa.</p> <p>Turismoa lehen mailako jarduera ekonomikoa da, eta modu eraginkorrean lagundu behar du <b>desberdintasuna murrizten</b> eta gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzen.</p>	<p><b>Zioen azalpena</b> 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena</p>
<p>Legearen xedeak.</p> <p>d) Bultzatzea baliabide eta zerbitzu turistikoetarako irispide unibertuala, indarrean dagoen legeriaren arabera ulertua, bai eta informazioa <b>baldintza berdinetan</b> izateko eskubidea ere.</p>	<p><b>3. artikulua</b> 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena</p>
<p>Organo aholku-emaileak</p> <p>4. Euskadiko Turismo Mahaia osatzerakoan, ahaleginak egingo dira trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten <b>emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua</b> izateko.</p>	<p><b>6. artikulua</b> 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena</p>
<p>Turismo-erabiltzaileen eskubideak</p> <p>d) Publikoari irekitako establezimenduetara <b>doan sartu eta haietan egoteko</b> eta establezimendu horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak edo zerbitzu horiei buruzko informazioa jasotzeko, horretarako muga bakarrak jarduera bakoitzaren berariazko erregelamenduan eta establezimenduaren barne-araudian jasotakoak izango direlarik.</p> <p>Era berean, erabiltzaileek eskubidea izango dute <b>tratu zuzena</b> eman, eta pertsona modura duten duintasuna errespetatu dakien, <b>bereizkeriarik egin gabe</b> haien jaiotza, arraza, sexu, desgaitasun, erlijio edo iritziengatik edota beste egoera pertsonal edo sozialengatik.</p>	<p><b>14. artikulua</b> 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena</p>
<p>Establezimenduetan sartzeko eskubidea.</p> <p>1. Establezimenduak lokal publikoak dira, eta inori ere <b>ezin zaio haietan sartzea galarazi</b> arraza, sexu, erlijio, iritzi edo desgaitasunengatik edota diskriminazioa eragin lezakeen beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik.</p> <p>Establezimendu mota bakoitzari aplikatu beharreko araudian zehaztuta daudenak izango dira irisgarritasun-baldintzak.</p>	<p><b>15. artikulua</b> 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena</p>
<p>Turismo-enpresen eginbeharrak.</p> <p>j) Zerbitzu turistikoaren erabiltzaileei zerbitzuetara irispide librean izaten eta haiek ematen diren lekuetan egoten utzi beharko diete, muga bakartzat jarrita legetik, jarduera arautzen duten agindu espezifikoetatik eta, hala badagokio, enpresek berek ezartzen duten barne-arautitik datozenak. Araudi horrek <b>ezin izango du jaso inolako manu diskriminatzaileerik</b> arraza, sexu, erlijio edo iritziengatik.</p>	<p><b>31. artikulua</b> 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena</p>



<p>Inklusioa. Helmuga turistikoa askotariko, <b>berdintasunezko eta inklusibo</b>aren garapena sustatzea, lurraldeak eskaintzen dituen esperientzia turistikoa iragarritasuna sustatzeko.</p>	<p><b>Jarduteko printzipioak</b> 2030 estrategia. Turismoaren eta Merkataritzaren Plan Estrategikoa</p>
<p>5. GJH. Genero-berdintasuna Estrategiak 5. GJH egiten dion ekarpena <b>sexuen berdintasuna</b> sustatuz garatuko da, sektoreari lotutako jarduerak guztietan ezinbestekoa den prerrogatiba gisa. Gainera, <b>emakumeen ahalduzkoak sustatze</b>ari lagunduko zaio enpresa-lidertza eta ekintzaileria bera ikusarazteko jardueretan, aukera-berdintasuna bi generoentzat bultzatuz kudeaketa-maila guztietan.</p>	<p><b>Estrategiak GJH egiten dien ekarpena</b> 2030 estrategia. Turismoaren eta Merkataritzaren Plan Estrategikoa</p>
<p>Berdintasuna, gizarteratzea eta aniztasunarekiko tolerantzia 2. Jarduera turistikoa <b>gizon eta emakumeen berdintasuna</b> errespetatuko dute. Era berean, giza eskubideak sustatuko dituzte eta, batez ere, biztanleria-talde kalteberenen eskubide espezifikoak, hau da, haurrak, pertsona nagusiak eta behar bereziak dutuzten pertsonak, gutxiengo etnikoak eta tokian tokiko herriak.</p>	<p><b>5.2. printzipioa.</b> Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa</p>

EAEko aginduez gain, kontsulta gisa jasotzen da TMEk egindako Ekintza Plana, zeina I Global Report on Women in Tourism – Second Edition (Turismoaren eremuko emakumei buruzko munduko txostena – bigarren edizioa) txostenaren ondorio nagusiak eta gomendioak oinarri hartuta egin baita. Plan honek neurri zehatzak jasotzen ditu sektore publikoko zein pribatuko eragileei honetan laguntzeko: turismoak emakumeak ahalduzkoak duen ahalmena bultzatzea.

HELBURUA	NEURRIAK
<p><b>Enplegua</b></p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>I. Turismoaren sektorean gizonen eta emakumeen arteko <b>soldata-arrakalari ekiteko</b> neurriak hartzea.</li> <li>II. Turismoaren sektoreko emakumeen <b>babes sozialari eta ordaindu gabeko lanari heltzea</b>.</li> <li>III. Turismoaren sektoreko emakumeen <b>sexu-jazarpenari</b> era sistematikoan heltzea, bai eta komunitate turistikoa komunitateotako kideen eta emakume bidaiarien aurkako jazarpenari ere.</li> <li>IV. Turismoaren sektorerako, <b>genero-berdintasuneko estrategiak garatzea eta instituzionalizatzea</b>.</li> <li>V. Turismoaren mendeko lanbideetan <b>genero-estereotipoei aurre egitea</b>.</li> </ol>
<p><b>Ekintzaileria</b></p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>I. Emakumeen negozio turistikoa gauzatzen direla bermatzeko lan egitea, emakumeek hala nahi badute, eta emakumeak <b>finantzetan sartzen</b> laguntzea.</li> <li>II. Emakumeen merkatuetarako sarbidea zabaltzea eta dibertsifikatzea eta euren produktu eta zerbitzuetarako bidezko merkataritza ere bai.</li> <li>III. <b>Emakumei sostengua ematea</b> turismo-produktuak eta zerbitzuak hedatzeko eta dibertsifikatzeko.</li> </ol>

	<p>IV. Turismoan emakumeen lan-bizitza eta bizitza pertsonalaren arteko <b>kontziliazioa hobetzeko</b> neurriak sartzea, eta turismo-komunitateetan ordaindu gabeko zaintza-lanaren banaketa ekitatiboa bultzatzea.</p> <p>V. Emakumeen <b>teknologia digitaletarako</b> sarbidea zabaltzea, turismoko plataforma digitaletarako sarbidea barne.</p>
<b>Lidergoa, politikak eta erabakiak</b>	<p>I. Turismo-enpresen goi-zuzendaritzan <b>genero-orekaren</b> alde lan egitea.</p> <p>II. Sektore pribatuko erabakiguneetan, sektore publikoko turismo-organoetan eta agentzietan goi-mailako <b>emakume liderren faltari aurre egitea</b>.</p> <p>III. <b>Amatasunari eta zaintza-ardurei buruzko</b> LANEren politikak errespetatzen direla bermatzea.</p> <p>IV. <b>Sindikatuetan</b> emakumeen ordezkartza eta lidergoa aktiboki sostengatzea.</p>
<b>Hezkuntza eta prestakuntza</b>	<p>I. Emakumeak turismoan <b>prestatzeko programak</b> garatzea, eta prestakuntza horretan pertsonarteko gaitasunak, harreman-sareak eta lanbidean aurrera egitera bideratutako goi-mailako prestakuntza sartzea.</p> <p>II. <b>Emakumeei bereziki zuzendutako prestakuntza</b> ematea, teknologia digitalen bidez turismoan berrikuntzak egin ahal izango dituztela bermatzeko.</p> <p>III. <b>Genero-berdintasunari buruzko prestakuntza</b> ematea arduradun publikoei, ikuskatzaileei eta langileei.</p> <p>IV. Turismoko titulazio eta ikasketetako <b>emakume ikasle eta graduatuen parte-hartzea</b> bultzatzea.</p>
<b>Komunitatea eta gizarte zibila</b>	<p>I. Komunitatean eta etxean erabakiak hartzerakoan <b>emakumeei neurri handiagoan ematea hitza</b>.</p> <p>II. Espainian genero-berdintasunaren eta giza eskubideen arloko konpromisoak betetzen direla eta modu eraginkorrean gauzatzen direla bermatzea.</p> <p>III. <b>Turismo-sareei, GKEei eta emakumeen turismo-kooperatibei laguntzea</b>, modu aktiboan lan egin dezaten emakumeak sektorean ahalduzko.</p>
<b>Politika hobek egiteko neurketak egitea</b>	<p>I. Turismoaren sektoreko enpleguari buruzko datuak erregulartasunez biltzea eta komunikatzea, <b>sexuaren arabera bereizita</b>, bai eta, ahal denean, honako hauei buruzkoak ere: enplegu turistiko formala edo informala, generoko soldata-arrakalak, ekintzailetza, hezkuntza eta prestakuntza, lidergoa eta erabakiak hartzea, denboraren erabilera eta lan-bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egitea.</p> <p>II. TMEn turismoaren sektoreko enpleguari buruzko datuak erregulartasunez ematea, sexuaren arabera bereizita.</p> <p>III. <b>Genero-analisia</b> egitea, gizarte zibileko eragileei kontsulta egitea eta genero-ikuspegia txertatzea turismo-politiken eta -programen zikloaren fase guztietan.</p>

Oharra. Arestian aipatutako manuek gain, komeni da sektore guztietan aplikatu beharreko berdintasun-arloko aginduak kontsultatzea. Generoaren arabera inpaktu-txostenak osatzeko material lagungarrien artean dagoen alderdi juridikoei buruzko agirian bildu dira guztiak.

### 3. LEGERIA

<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA</b>
<a href="#">13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena.</a>
<a href="#">2030 estrategia. Turismoaren eta Merkataritzaren Plan Estrategikoa.</a>
<a href="#">Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa</a>
<b>ESPAINIA</b>
<a href="#">4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Transexualen berdintasun benetako eta eragingaririkoa eta LGTBI kolektiboetako kideen eskubideak bermatzekoa</a>
<a href="#">Indarkeria matxistari aurre egiteko 2022-2025 estatu estrategia</a>
<a href="#">Giza salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakume eta neskatoen nahiz prostituzio-testuinguruetan dauden emakumeen giza eskubideak babesteko Plan Operatiboa (2022-2026) Camino plana</a>
<b>EUROPA</b>
<a href="#">Ebazpena, Europako Parlamentuarena, Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako «Europako turismoaren etorkizunerako lankidetzaren esparrua» komunikazioari buruzkoa (COM (2001) 665 - C5-0077/2002 - 2002/2038 (COS))</a>
<b>NAZIOARTEA</b>
<a href="#">Turismorako Munduko Kode Etikoa (TMKE), Turismoaren Mundu Erakundea 1999</a>
<a href="#">Turismoaren eremuko emakumeei buruzko munduko txostena   Ekintza plana, NBE Turismoa, 2020</a>
<a href="#">Turismoaren eremuan, sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko orientabideak, NBE Turismoa, 2022</a>
<a href="#">Turismo-enpresentzako genero-berdintasunerako estrategia, NBE Turismoa, 2022</a>
<a href="#">LANEren jarraibideak lan duinari eta turismo sozialki arduratsuari buruz, Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2017</a>

## 4. DATUEN ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAK.
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko biztanleen bidaiatzeko ohitura, bidaiaren iraupenari, maiztasunari eta sexuari erreparatuta</li> </ul>	<u>Turismoari buruzko euskal herritarren iritziak</u>  Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023 (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea)	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko biztanleek bidaiatzeko dituzten motibazioak, sexuari erreparatuta</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko biztanleen bidaietako jarduera motak, sexuari erreparatuta (Aste Santua eta uda)</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAE bisitatzen duten turistak, adinari eta sexuari erreparatuta</li> </ul>	<u>IBLTUR-EAE bisitatzen duen turistaren ezaugarriak eta joera</u>  Eustat, 2020	Bi urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAE bisitatzen duten Estatuko turistak, adinari eta sexuari erreparatuta</li> </ul>	<u>FAMILITUR-Euskadira datozen estatuko bidaiariak</u>  Segurtasun Saila, 2022	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAE bisitatzen duten bidaiariek egindako jarduerak, sexuari erreparatuta</li> </ul>	<u>EAEko aisialdiko turisten portaeraren gakoak, analisi ebolutiboa eta tipologiak</u>  Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2020a	Maiztasun jakinik gabe
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ostalaritza eta turismoko heziketa-zikloan matrikulatutako ikasleak, sexuari, LHko mailari eta lurralde historikoari erreparatuta</li> </ul>	<u>Irakaskuntza ez-unibertsitarioei buruzko Estatistika</u>  Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, 2023	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAE unibertsitateko turismoko graduari matrikulatutako eta graduatutako ikasleak, sexuari erreparatuta</li> </ul>	<u>Unibertsitate-estatistika</u>  Eustat, 2023	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>Estatuan turismoan lanean ari diren pertsonak, sexuari erreparatuta</li> </ul>	<u>Biztanleria Aktiboaren Inkesta</u>  EIN, 2023	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>Estatuan turismoan langabezian dauden pertsonak (milakotan), sexuari eta jarduerari erreparatuta</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Estatuan turismoan lanean ari diren pertsonak, sexuari eta lanaldiari erreparatuta</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Estatuan turismoan lanean ari diren pertsonak, lanaldi motari, sexuari eta jarduerari erreparatuta</li> </ul>		

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAK.
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatuan zerbitzuen sektoreko soldatako langileak, kontratu motari eta sexuari erreparatuta</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatuan turismoan lanean ari diren pertsonak, sexuari eta lanaldiari erreparatuta Segregazio horizontala</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatuan zerbitzuen sektorean lanean ari diren pertsonak, sexuari eta egoera profesionalari erreparatuta Segregazio bertikala</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatuko urteko batez besteko soldata eta generoko soldata-arrakala turismoaren sektoreari lotutako jardueretan</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEn Gizarte Segurantzaren turismo-jardueretan afiliatutako pertsonak, sexuari eta adarrari erreparatuta</li> </ul>	<p>Turismo-enpresetan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunei buruzko diagnostikoa, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak garatu beharreko lan-ildoan eta esku-hartzeen identifikazioa.</p> <p>Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2022</p>	Maiztasun jakinik gabe
<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEko turismo-enpresen zuzendaritzan dauden pertsonak, azpisektoreari eta sexuari erreparatuta</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatuan bidaiatzen ez duten pertsonak, sexuari eta ez bidaiatzeko arrazoiei erreparatuta</li> </ul>	<p><u>Encuesta de turismo de residentes</u></p> <p>EIN, 2022</p>	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aste Santuan eta udan bidaiatzen ez duten EAEko pertsonak, sexuari eta ez bidaiatzeko arrazoiari erreparatuta</li> </ul>	<p><u>Turismoari buruzko euskal herritarren iritziak</u></p> <p>Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023 (Prospekzio Soziologikoen Kabinetean)</p>	Maiztasun jakinik gabe
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren organigrama Eusko Jaurkitzaren XII. legegintzaldian, sexuari erreparatuta</li> </ul>	<p><u>Egitura eta eginkizunak</u></p> <p>Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2024a</p>	Maiztasun jakinik gabe
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskadiko Turismo Mahaiaren osaera, sexuari erreparatuta</li> </ul>	<p><u>Euskadiko Turismo Mahaia</u></p> <p>Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2024a</p>	Maiztasun jakinik gabe
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismoaren Euskal Agentziaren administrazio-kontseiluaren organigrama sexuari erreparatuta</li> </ul>	<p><u>Organigrama eta langilegoa</u></p> <p>Basquetour, 2024</p>	Maiztasun jakinik gabe

## 5. ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK

### 5.1 AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- Calderón Fajardo, V. eta Rodríguez-Rodríguez, I., 2024. El turismo como espejo sociocultural: Estereotipos y representaciones de género
- Cañada, E., 2019. El trabajo de las camareras de piso: un estado de la cuestión, *Papers de Turisme*, 62, 67.-84. or.
- Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza (GIGO), 2018 Percepción social de la violencia sexual
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila 2020a. EAEko aisialdiko turisten portaeraren gakoak, analisi ebolutiboa eta tipologiak
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila 2020b. Euskadira kongresu eta biltzarretan parte hartzeraz etortzen diren turisten profila eta portaera
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, 2023 Turismoari buruzko euskal herritarren iritziak
- Dinamiza, 2017. Estudio de la demanda de turismo gastronómico en España
- Emakunde, 2023. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030erako Estrategia
- Foro Turismo Responsable, 2015. ¿Equidad de género en el turismo? muchas sombras y algunas luces
- Fuller, N., 2012. Género y Turismo: Una relación ambigua, IV. Turismo Arduratsuari buruzko Topagunea, Donostia
- Guilló Girard, C. eta Santiago Gordillo, P., 2016. Trata, prostitución y turismo sexual España en la intersección. In A. De Miguel (ed.), & L. Nuño (ed.), Elementos para una teoría crítica del sistema prostitucional. Granada: Comares. Enlace Trata, prostitución y turismo sexual
- Emakumeen Institutua, 2024 La brecha retributiva entre mujeres y hombres: análisis de sus causas y herramientas para combatirla
- López-González, J.L.; Medina-Vicent, M., 2020. Las Kellys y el turismo: de la invisibilidad del cuidado a la visibilidad política. Digithum, 25
- Observatorio de Turismo rural, 2022. Informe anual del turismo rural en 2022
- Observatorio Noctámubulas, 2018. 5ª Informe Anual entre el consumo de drogas y las violencias sexuales en los contextos de ocio nocturno.
- OECD, 2024., Breaking the Vicious Circles of Informal Employment and Low-Paying Work. Paris: OECD Publishing
- TME, 2019. Turismoaren eremuko emakumeei buruzko munduko txostena – bigarren edizioa
- Ranea Triviño, B., 2018. La prostitución: entre viejos privilegios masculinos y nuevos imaginarios neoliberales
- Salvador-Almela, M.; Abellan-Calvet, N; Izcarra Conde, C., .2020. Feminización del empleo turístico y precariedad laboral, *Turismo: Estudios & Prácticas*, 9, 1-13
- SEPE, 2023. El empleo en el sector del turismo en España

## 5.2 ESKULIBURUAK ETA GIDAK

- Bilbao BBK Live, d.g. [Sexu-erasoen protokoloa](#)
- Azcárate T., Benayas J., Nerilli G. eta Justel A., 2019. [Guía para un turismo sostenible. Retos del sector turístico ante la Agenda 2030](#)
- Emakunde, 2022. [Jaietan emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzeko tokiko prozesuak sustatzeko gida](#)
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionala (INSST/LSOIN, 2019) [Guía para la gestión y evaluación de los riesgos ergonómicos y psicosociales en el sector hotelero](#)
- Turismoaren Mundu Erakundea, 2022 [Orientaciones para la incorporación de una perspectiva de género en el sector público dentro del ámbito del turismo](#)
- [Plan de acción sobre las mujeres en el turismo](#), NBE Turismoa, 2020. Turismoaren eremuko emakumeei buruzko munduko txostena. Bigarren edizioa.

## 5.3 WEB-BALIABIDEAK

- Segurtasun Saila, 2022. [FAMILITUR.Euskadira datozen estatuko bidaiariak](#)
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, d.g. [Sailaren estatistikak](#)
- Eustat, 2020. IBILTUR. [Euskal AE bisitatzeko duen turistaren ezaugarriak eta joera](#)
- Eustat, 2023. [Turismoaren kontu satelitea](#)
- Eustat, 2023b. [Behatu gabeko ekonomiaren neurketa](#)
- EIN, 2021. [Encuesta de Estructura Salarial](#)
- EIN, 2022. [Encuesta de turismo de residentes](#)
- EIN, 2023. [Cuenta satélite del turismo de España](#)
- EIN, 2023b. [Encuesta de Población Activa](#)
- Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, 2023. [Estadística de las Enseñanzas no universitarias](#)
- TME, d.g. [Género y Turismo: El empoderamiento de las mujeres y el turismo:](#)
  - o Primer Plano programa
  - o Turismoaren eremuko genero-berdintasunari buruzko prestakuntza
  - o Turismoaren eremuan sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko orientabideak
  - o Turismo-enpresentzako genero-berdintasunerako estrategia
  - o Turismoaren eremuko emakumeei buruzko ekintza-plana
  - o (...)
- Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, d.g., [Merkataritza eta ostalaritza](#)